

Claire Atherton

ZINE-MUNTATZAILEA

“

MISTERIOAK SORTZEN DU MUGIMENDUA, GABEZIAK

”

Chantal Akerman zinegile eta lankidea hil eta hamar urtera, haren ondarea zabaltzen buru-belarri jarraitzen du Claire Atherton muntatzaileak. Gaurkoan, ordea, Athertoni bere ibilbideaz galdetu nahi izan diot bereziki. Gasteizen, Artium museoko areto batean hartu gaitu, bazkalostean. Orainetik iraganera saltoka ibili gara hiru ordu laurdeneko gerizpean, nahiz eta dena ez den hemen agertuko. Horixe baita zinema: denbora, argia eta hutsuneak.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Artiumen gaude. Chantal Akermani buruzko erakusketaren egitarau publikoan parte hartzera etorri zara, eta JAI programako ikasleekin jardutera. Zer moduz?

Oso pozik nago berriro hemen egoteaz, eta ikasleekin izandako hartu-emanak oso aberatsak izan dira. Erakusketa ikusi dute, eta batek esan dit oso nabarmena zela lekuaren eta erakusketaren arteko lotura. Atsegin eman dit horrek. Erakusketek, niretzat, lotura handia baitute lekuarekin. Nahiz eta beti eraikitzen diren lehen erakustaretoaren arabera –kasu honetan, Bartzelonako Virreina zentroan egon zen erakusketa, Artiumen egon baino lehen–, harreman hori transposatu egiten da gero, eta harreman be-

rri bat sortzen da. Partitura bat balitz bezala: leku bakoitzean interpretazio berri bat egiten da, eta akaso bariazioak gehitzen dira.

Azken 40 urte luzetan film-muntatzaile moduan aritu zara. Zein izan zenuen zinemarekiko lehen harremana? Baduzu arrastoa utzi dizun filmik?

Zenbait film garrantzitsuak izan dira niretzat. Ez dakit nire lanean eragin duten, gauza askok eraikitzen gaituzte azken batean, baina oso gogoan ditut, esaterako, Dreyer-en *Ordet* eta Rossellini-ren *Europe '51* eta *Allemagne Année Zero*. Pertsonaiengandik oso gertu zaude, baina, aldi berean, halako distantzia bat

dago. Eta gero, Tarkovski oso garrantzitsua da niretzat, baina oso berandu aurkitu nuen. Benetan ezagutu, duela hamar urte-edo ezagutuko nuen. Eta aliatu bat aurkitu nuela iruditu zitzaidan. Ea, ez dadila gaizki ulertu, nik asko miresten dut. Nahiz eta, aldi berean, ez naizen artistak idolotzat hartzen dituztenetakoa. Horregatik ezagutu genuen elkar Chantalek eta biok, nik ez nuelako goersten. Parez pareko harremana izan genuen beti, baita lehen aldiz topo egin genuenean ere.

Ordurako ezaguna zen bera.

Bai, 1984an izan zen. Ordurako *Jeanne Dielman* egina zuen, eta zalaparta sortua zen filmaren harira.



Claire Atherton

SAN FRANTZISKO (AEB), 1963



Parisen hazi zen. Gaztetan, bideo-tek-
nikari gisa lanean aritu zen Simone de
Beauvoir Zentroan. Txinatar hizkuntza
eta zibilizazioa ikasi zituen, bai eta ikus-
entzunezkoen arloko lanbide-hezike-
ta jaso ere. 1986an, muntatzaile aritu
zen Chantal Akermanen *Letters Home*
filmean, eta ordutik aurrera Akermanen
kolaboratzailea izan zen 30 urte luzez.
Beste hainbat zuzendarirekin ere lan
egin du, hala nola Éric Baudelaire eta
Maria Kourkouta-rekin. 2019an, Locar-
noko Nazioarteko Zinemaldiak Vision
Award Ticinomodara saria eman zion bere
ibilbide osoagatik. Akermanen gaine-
ko erakusketa urriaren erdialdera arte
egongo da ikusgai Artium museoan.

**Parisko Simone de Beauvoir Ikus-
entzunezko Zentroaren bitartez
egin zenuten topo. Zu zeu bideo-
teknikaria zinen han. Nolatan?**

Gauza konkretuak ikasteko eta egiaz-
ko bizitzari aurre egiteko beharra
neukan. Baita bizitza aurrera atera-
tzekoa ere, behintzat neurri batean,
ze ni, Simone de Beauvoir zentroan,
praktiketan ari nintzen, bai-
na banuen ordainsaritxo
bat. Bestalde, gogoko
nuen lan teknikoak, eta
atxikimendu handia
sentitzen nuen kon-
promiso politikoa-
rekiko. Lehenago So-
lidarność sindikatu
poloniarrarekin ari-
tua nintzen, esaterako.

**Zentroak berak
eskainitako praktikak ziren?**

Ez. 1981ean, François Mitterrand-ek
hauteskundeak irabazi ostean, diru
asko sartu zen elkartegintzan, eta,
tartean, Simone de Beauvoir Zentroa
sortu zen. Horretaz aparte, bazen bes-
te programa bat, Boluntario Gazteak
izenekoa, Gazteria eta Kirolaren Mi-
nisterioak antolatua, eta ni aurkeztu
egin nintzen. Eman zidaten, eta hortik
iristen zitzaidan soldata, baina prak-
tikaldia bera egiteko leku bat aurkitu
behar nuen. Delphine Seyrig ezagu-
tzen nuen, Simone de Beauvoir Zen-
troaren sortzaileetako bat, eta berak
esan zidan: "Gurera etorri behar
duzu". Iritsi nintzenean oso
momentu berezia zen,
zerbaiten jaiotza. Eta
asko gustatu zitzai-
dan horretan parte
hartzea. Gero, gataz-
ka handiak ere izan
ziren barruan, nor-
mala den moduan.

**Itxi egin zen, eta
berriro ireki, ezta?**

Bai. Gerora ez dut asko jarrai-
tu zentroaren ibilbidea. Ni hasiera-ha-
sieran egon nintzen han, hiru kideren
arteant sortu zutenean, eta bolada ki-
tzikagarria izan zen benetan. Gaine-
ra, ni oso gaztea nintzen, antolatuta
nengoen, eta energiaz beteta. Gauza
mordoa egiten nuen han zentroan,
eta pila bat ikasi nuen. Ez bakarrik
arlo teknikoan, baita giza harremanei
dagokienez ere. Beti ez dira errazak.

Zentroko esperientziak asko irakatsi
zidan, eta gerora apenas izan dudan
arazorik jendearekiko harremanetan,
lanaren arloan.

**Zentroa mugimendu feministarekin
lotuta zegoen. Nolakoa zen giroa
garai hartan?**

Horren guztiaren parte izan nintzen,
bete-bete. Eta baziren es-
logan batzuk asko maite
nituenak, adibidez, ho-
nako hau -zeina, bide
batez, berriro mahai
gainera ekarri behar-
ko genukeen-; hala
zioen: *Gizonik gabeko
emakumea, bizikleta-
rik gabeko arraina*. Ha-
lako esloganez betetako
eranskailuak eramaten
nituen eskolara, eta oso alaia
zen, oso dibertigarria iruditzen
zitzaidan, eta asko elikatu ninduen.
Baina, horretaz aparte, gizarteari da-
gokionez, zaila zen. Garai hartan, *fe-
minista* esaten zizutenean, iraina zen.
Oztopoak gainditu behar ziren. Gaur
egun hori aldatu egin da.

Eta zentroaren barruan?

Niri beti iruditu izan zait garrantzitsua
dela emakume-talde ez-mistoen kon-
tutua, gaur egun ere garrantzitsua irudi-
tzen zait, modu zabalagoan bada ere.
Baina zentroko batzuek ezingo lukete
zentroaren barruan egiten zutena egin
zentrotik kanpo. Eta, besteei buruz
jardun gabe, neure ikuspegira
itzulita, nik ez nuen horre-
tara mugatu nahi. Zera
sentitzeko premia neu-
kan: bizitzan aurrera
egiten banuen, ez zela
emakume bat nintzela-
ko emakumeen artean.
Beharra neukan mun-
dura joateko, mundu...

Mistora?

Mundu normalera esatera nin-
doan, baina bai, mundu mistora. Ez
nuen burbuila batean egon nahi, nahiz
eta, esan bezala, burbuila konplikatu
izan, ze etsaitasuna eta gatazka han-
diak zeuden. Eta, halako batean, ikas-
ketak egin nahi izan nituen, baina ez
nuen joan nahi zinema-eskola batera,
Fémis-era adibidez, edo arte-eskola
batera. Ez neukan gogorik arteaz nola
pentsatu irakats diezadaten. Oinarri

**Gehien irakatsi didaten
bi gauzak Chantal
ezagutzea eta txinera
ikastea izan dira"**

**Chantalek esaten zuen
'Jeanne Dielman' egin
aurretik lotsagabea zela,
eta instalazioetan aurkitu
zuen berriro hori"**



batzuk nahi nituen, eta hortik abiatuta neure kabuz konpontzeko gai izan.

Eta lanbide-heziketako ikasketak egin zenituen Louis Lumière eskolan. Bai, diplomaren kontua oso garrantzitsua bilakatu zen niretzat. Bestalde, harrigarria da, ze diplomek ez didate ezertxotarako ere balio izan. Gehien irakatsi didaten bi gauzak Chantal ezagutzea eta txinera ikastea izan dira. Lanbide-heziketarekin batera txinera ere ikasten nuen fakultatean.

Erakusketara itzuli nahi nuke. Erakusketan bertan ez dira Akermanen filmak ageri, baizik eta bideo- eta soinu-instalazioak, preseski halako kontestuetarako bien artean prestatu zenituztenak. Atzoko hitzaldian asko azpimarratu zenuen instalazioak pieza independenteak direla. Zergatik interesatzen zitzaizkizuen?

Lehendabizikoaren ideia ez zen gugandik sortu. Chantali eskatu egin zioten, eta horregatik egin genuen. Gehienetan hala izaten zen, kanpotik eskatutako zerbait. Ez dut uste Chantalek inoiz

diru-iturririk bilatu zuenik propio instalazio bat egiteko. Hala eta guztiz ere, esan behar da izugarri gustatzen zitzaio- la instalazioak sortzea. Beraz, aukerarik bazegoen... Batzuetan dirua zegoen, beste batzuetan ez asko, baina geure kabuz konpontzen ginen. Materiala bere gordinean hartu, eta aurrera. Eta hori maite zuen Chantalek: zegoenarekin konpontzea, gauzak asmatzea, teknikak sortzea... Halako grina bat, halako ingenuitate bat berreskuratzen zuen, bere ibilbidearen hasierahasieran zeukana. Izan ere, *Jeanne Dielman* egin eta gero, gauzak aldatu egin ziren; *Jeanne Dielman* egin eta gero, jendea zain zeukan.

Eta horrek presioa eragiten zion?

Berak zera esaten zuen, *Jeanne Dielman* egin aurretik lotsagabea zela, eta gerora beti saiatu zela lotsagabekeria-egoera hori berreskuratzen, eta, hain zuzen, instalazioetan aurkitu zuela berriro. Oso leku librea zen berarentzat, ez zuen ezer frogatu behar inoren aurrean, ez zuen azaldu behar zer egingo zuen. Badakit gaur egun gauzak ez direla hala artearen munduan, baina, garaian, diru apur bat

ematen zioten, eta zegoenarekin egiten genuen aurrera, batzuetan hala moduzko baldintzetan. Baina aurrera, hara.

Zineman muntatzaile gisa lanean hasi zinenetik, gauza asko aldatu dira; adibidez, lehen analogikoan lan egiten zenuen, eta, orain, digitaletan. Zer beste aldaketa nabarmenduko zenuke?

Kasua kasu... Aldaketak zer arlotan, diozu?

Arlo guztietan, edozein arlotan.

Muntaketari dagokionez, analogikoaren eta digitalaren kontuak eragin handia izan du, bai. Muntaketa asko aldatu da: orain ordenagailuan aritzen gara, eta askoz lasterragoa da dena. Arriskutsua iruditzen zait, batzuetan ez daukagulako distantziarik egin dugun horrekiko. Ni, esaterako, saiatzen naiz tarte hori, berreskuratzen eta birsortzen.

Eta muntaketatik harago?

Digitalizazioaren kontuarekin lotuta, nahiz eta muntaketari ez dion hainbeste eragiten, aldaketa nabarmen bat gertatu da grabatzeko bitartekoetan, eta bai irudian zein soinuaren, dena harrapatu nahi da. Hau da, pixelak biderkatu dira. Jada ez dago ia irudirik non leku batek ez daukan milioika pixeleko definizioa; HD irudi batean gauzak zehatzago ikusten



Dena esan beharraren joera dago, baina arteak, hain zuzen, beste egitate h au errespetatu behar du: dena ezin dela esan



ditugu geure begiekin baino. Ez dut esan nahi lehen gauzak hobeak zirenik, edo okerragoak: aurrera egin behar da, eta Chantalek ere ez zuen halako jarrerarik izaten, gogoko zuen berritasunen alde onak baliatzea. Baina adi ibili behar da, hala ere. Dena esan beharraren joera bat dago, baina arteak, hain zuzen, beste egitate hau errespetatu behar du: dena ezin dela esan.

Aurreko batean *Letters Home* ikusi nuen berriro, Chantalekin muntatu nuen estreinako luzea, eta bid eoak oso definizio baxua du. Ba, aizu, on ikaragarria egin zidan. Irudiak bazuen halako sakontasun bat, halako edertasun bat, besteak beste gabezia ere biltzen zuelako, falta. Eta gaur egun arazoak ditugu faltarekin. Adibidez, aurrekoan batek esan zidan HDa miragarria dela ze filmatzen duzu eta gero zernahi egin dezakezu post-ekoizpenean. Baina nola zernahi egin? Eta berak erantzun zidan: ba dena eraldatu. Baina horixe da-eta arazoa. Errodajeon gertatu denarekin lan egiten dugu, baina gero dena eraldatzen bada, badirudi ez garela fio geure bulkadez, geure mugimenduez.

Zuretzat oso garrantzitsua da faltaren edo gabeziaren kontu hori.

Uste dut halako gauzekin adi ibili behar dugula, bestela, baliteke joera hauek zinegile gazteen pentsaera ere kutsatzea, eta haiek uste izatea dena esan behar dela, dena erakutsi, dena ulertarazi. Eta, horrekin lotuta, zinegileei gero eta gehiago eskatzen zaie zer egingo duten jakin dezaten, gauzak zehatz-mehatz nola egingo dituzten aurrez jakin dezaten, eta hori ere halako zehaztasun- eta kontrol-prozesu erabatekoa da. Eta ez da errespetatzen misterioa, gabezia: azken batean, horrek sortzen du mugimendua. Ez naiz hau dioen lehena: gabeziak eginarazten digu aurrera. Eta gabezia eza-batzen saiatzan ari dira. Badirudi ez dela errespetatzen existentziaren ordenari

datxekion zerbait, misterioaren ordenari dagokiona. Hitz handiak dirudite, baina uste dut halaxe dela.

Besterik gehitu nahi zenuke?

Bueno, artearen alderdi politikoa ere horrekin guztiarekin lotuta dago, nire ustez. Guztia esaten ez badugu, espazio bat zabaltzen dugu, baieztapenez beteta ez dagoen espazio bat, eta horri esker ikusle bakoitzak gogoeta egiteko aukera du, mugitzeko aukera, eta hala egiten dugu aurrera. Gaur goizean ikasle batek Chantalen testu bat irakurri dit, eta Chantalek azaltzen zuen arazoak zituela *artista* hitzarekin. Eta ikasleak galdetu dit ea zer uste nuen nik hitz horretaz.

Zer uste duzu?

Niretzat artista izatea ez da lanbide bat, uste dut denok izan gaitezkeela artistak une batean. Eta ez da demagogia, hor badago egia bat. Adibidez, baten batek esaten duenean norbait artista ona dela, hori are okerragoa iruditzen zait. Zer esan nahi du artista ona izateak? Ba pertsona horrek badakiela hizketan. Niretzat artista izateak ez du pertsona bat ezaugarritzen, niretzat artista izatea da gai izatea norberarengandik ateratzen diren gauzak harrapatzeko, edo norberaren parean gertatzen diren gauzak harrapatzeko, gauza ulertezinak akaso; ba horiek eta horiekin obra bat eraikitzea, zeinak goitiki behera inarrosiko gaituen edo zerbait ezaugarritzeko digun. Hori da artista bat. Beraz, ez da lanbide bat, nahiz eta ondotxo dakidan beste lan asko ere egin behar direla artean aritzeko, ez hain ederrak, neronek maiz egin behar izan ditudanak: jendearekin hitz egin, emailak bidali... Baina ez dugu ahaztu behar artearen alderdi bulkadazko, intuiziozko hori. Iruditzen zait gure bizimoduaren funtsezko alderdi bat dela, hara. Beste elikagai bat, hain zuzen. ●